Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala — Boletín Oficial de Gipuzkoa

2021eko uztailaren 15a, osteguna — 133 — Jueves, a 15 de julio de 2021

GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO ADMINISTRAZIOA — 2 — ADMINISTRACIÓN DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE GIPUZKOA

## GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

### DIPUTATU NAGUSIA

**Giza Eskubideetako eta Kultura Demokratikoko Zuzendaritza Nagusia**

*Dirulaguntzak ematea Giza Eskubideetako eta Kultura Demokratikoko Zuzendaritza Nagusiak kudeatzen dituen programen kontura. 2021. urteko deialdia. 2. lerroa: Gipuzkoako udalei nahiz Gipuzkoako Lurralde Historikoan finkatuta dauden eskualde mailako tokiko garapen agentziei zuzendutako dirulaguntzak, proiektuak gauzatzeko aniztasuneko bizikidetzaren gaietan.*

Diputatu nagusiak ondoko foru dekretua eman du 2021eko uztailaren 8ko datarekin:

Giza Eskubideetako eta Kultura Demokratikoko Zuzendaritza Nagusiak kudeatzen dituen programen kontura dirulaguntzak emateko oinarri arautzaileak (orokorrak eta espezifikoak) eta 2021eko deialdia 2021eko martxoaren 16ko Diputatuen Kontseiluko Erabakien bitartez onartu ziren (2021eko apirilaren 6ko Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 61. zk.). Dirulaguntzen 2. lerroak Gipuzkoako udalei nahiz Gipuzkoako Lurralde Historikoan finkatuta dauden eskualde mailako tokiko garapen agentziei zuzendutako dirulaguntzak jasotzen ditu, proiektuak gauzatzeko aniztasuneko bizikidetzaren gaietan.

Oinarri orokorretan ezartzen denez, laguntza horiek elkarrekiko norgehiagoka prozeduraren bidez eman dira. Giza Eskubideetako eta Kultura Demokratikoko Zuzendaritza Nagusiak eskaerak aztertu eta baloratu ditu, kontuan harturik zer irizpide ezarri ziren oinarrietan dirulaguntzak emateko, eta ebaluazio batzordeak prozedura ebazteko proposamena egin du.

10.1 oinarri orokorrean ezarritakoaren arabera, diputatu nagusiak emango du deialdiaren ebazpena, foru dekretu baten bidez. Bestalde, 10.2 oinarriak eta 39/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 45.1.b) artikuluan ezarritakoari jarraituz, deialdi honen ebazpena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da. Argitalpen horrek banakako jakinarazpena ordeztuko du, eta jakinarazpena egintzat ulertuko da lege ondorio guztietarako, hura argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Era berean, argitaratze horrekin bete egiten da dirulaguntzei publizitatea emateko obligazioa, 3/2007 Foru Arauak, martxoaren 27koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzkoak, 17.1 artikuluan ezarritakoaren arabera.

Horrela bada, ebaluazio batzordeak egindako ebazpen proposamenari jarraituz, diputatu nagusiak

EBATZI DU

*Lehenengo.* Ematea foru dekretu honen eranskinean zehazten diren Gipuzkoako udalei nahiz Gipuzkoako Lurralde Historikoan finkatuta dauden eskualde mailako tokiko garapen agentziei zuzendutako dirulaguntzak, proiektuak gauzatzeko aniztasuneko bizikidetzaren gaietan, Giza Eskubideetako eta Kultura De-

## DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

### DIPUTADO GENERAL

**Dirección General de Derechos Humanos y Cultura Democrática**

*Concesión de subvenciones con cargo a los programas gestionados por la Dirección General de Derechos Humanos y Cultura Democrática. Convocatoria año 2021. Línea 2: Subvenciones destinadas a ayuntamientos guipuzcoanos y a agencias comarcales de desarrollo local radicadas en el Territorio Histórico de Gipuzkoa para la realización de proyectos en materia de convivencia en la diversidad.*

El diputado general, con fecha de 8 de julio de 2021, ha dictado el siguiente decreto foral:

Las bases reguladoras (generales y específicas) y la convocatoria de 2021 para la concesión de subvenciones con cargo a los programas gestionados por la Dirección General de Derechos Humanos y Cultura Democrática fueron aprobadas mediante Acuerdo del Consejo de Gobierno Foral de 16 de marzo de 2021 (Boletín Oficial de Gipuzkoa n.º 61, de 6 de abril de 2021). La línea 2.ª recoge las subvenciones destinadas a ayuntamientos guipuzcoanos y a agencias comarcales de desarrollo local radicadas en el Territorio Histórico de Gipuzkoa para la realización de proyectos en materia de convivencia en la diversidad.

Como se establece en las bases generales, el procedimiento de concesión se ha llevado a cabo mediante concurrencia competitiva. La Dirección General de Derechos Humanos y Cultura Democrática ha analizado y valorado las solicitudes presentadas, teniendo en cuenta los criterios de concesión de subvenciones establecidos en las bases, y la comisión evaluadora ha formulado la propuesta de resolución.

Según lo dispuesto en la base general 10.1, corresponde al diputado general resolver la concesión de la convocatoria mediante decreto foral. Por otra parte, de conformidad con lo dispuesto en la base 10.2 y en el artículo 45.1.b) de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, de Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, la resolución de la presente convocatoria será objeto de publicación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, sustituyendo dicha publicación a la notificación individual y entendiéndose efectuada ésta a todos los efectos legales desde el día siguiente a dicha publicación.

Asimismo, con la citada publicación se da cumplimiento a la obligación de dar publicidad de las subvenciones concedidas, prevista en el artículo 17.1 de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

Por todo ello, de acuerdo con la propuesta de la comisión evaluadora, el diputado general

RESUELVE

*Primero.* Conceder las subvenciones destinadas a ayuntamientos guipuzcoanos y a agencias comarcales de desarrollo local radicadas en el Territorio Histórico de Gipuzkoa para la realización de proyectos en materia de convivencia en la diversidad que se detallan en el anexo del presente decreto foral, den-

EK\CV GAO-I-2021-04812

mokratikoko Zuzendaritza Nagusiak kudeatzen dituen programen kontura dirulaguntzak emateko 2021eko deialdiaren barruan (2. lerroa). Horretarako, 120.000,00 euroko gastua xedatuko da zerrendan azaltzen diren erakunde onuradunen alde, zehazten diren zenbateko partzialengatik eta kontu sailen kargura.

*Bigarren.* Jarraian aipatzen diren eskaerak ezestea, 60 puntuko balioespen gutxienekoa ez lortzeagatik (4.2. oinarri espezifikoa):

— *Kodea:* 2021-AN01-006-01.
*Entitate eskatzailea:* Eskoriatzako Udala.
*Programa:* Herritar pluralak, herri bakarra.
*Puntuak:* 49.

— *Kodea:* 2021-AN01-008-01.
*Entitate eskatzailea:* Zumaiako Udala.
*Programa:* Harrera protokoloa indartu eta gida garatu.
*Puntuak:* 52.

— *Kodea:* 2021-AN01-011-01.
*Entitate eskatzailea:* Beasaingo Udala.
*Programa:* Beasaingo Udalaren harrera protokoloa.
*Puntuak:* 39.

Foru dekretu hau behin betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Interesatuek administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkez dezakete foru dekretu honen aurka Donostiako Administrazioarekiko Auzietako epaitegietan, argitalpenaren biharamunetik hasita bi hilabeteko epean.

Hala ere, interesatu partikularrek aukera dute horren aurretik berraztertzeko hautazko errekurtsoa aurkezteko diputatu nagusi honi, argitalpenaren biharamunetik hasita hilabeteko epean. Hori eginez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu harik eta berraztertzekoaren berariazko ebazpena eman edo ustezko ezespena gertatu arte. Dena dela, egoki iritzitako beste edozein errekurtso aurkez daiteke.

Donostia, 2021eko uztailaren 8a.—Juan José de Pedro Alonso, Diputatu Nagusiaren Alorraren idazkaria. (4812)

tro de la convocatoria de 2021 para la concesión de subvenciones con cargo a los programas gestionados por la Dirección General de Derechos Humanos y Cultura Democrática (línea 2), disponiendo a favor de las entidades beneficiarias relacionadas un gasto de 120.000,00 euros, por los importes parciales y con cargo a las partidas presupuestarias que se señalan.

*Segundo.* Denegar las siguientes solicitudes, por no obtener la valoración mínima de 60 puntos (base específica 4.2):

— *Código:* 2021-AN01-006-01.
*Entidad solicitante:* Ayuntamiento de Eskoriatza.
*Programa:* Herritar pluralak, herri bakarra.
*Puntos:* 49.

— *Código:* 2021-AN01-008-01.
*Entidad solicitante:* Ayuntamiento de Zumaia.
*Programa:* Harrera protokoloa indartu eta gida garatu.
*Puntos:* 52.

— *Código:* 2021-AN01-011-01.
*Entidad solicitante:* Ayuntamiento de Beasain.
*Programa:* Beasaingo Udalaren harrera protokoloa.
*Puntos:* 39.

El presente decreto foral es definitivo y pone fin a la vía administrativa. Las personas interesadas podrán interponer contra el mismo recurso contencioso-administrativo ante los Juzgados de lo Contencioso-Administrativo de San Sebastián, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su publicación.

No obstante, las personas interesadas particulares, con carácter previo, podrán interponer recurso potestativo de reposición ante este diputado general, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su publicación. En este caso, no se podrá interponer recurso contencioso-administrativo hasta que sea resuelto expresamente el de reposición o se haya producido su desestimación presunta. Todo ello sin perjuicio de la interposición de cualquier otro recurso que se estime pertinente.

San Sebastián, a 8 de julio de 2021.—El secretario del Área del Diputado General, Juan José de Pedro Alonso. (4812)

ERANSKINA / ANEXO

| *Espedientea*<br>*Expediente* | *Entitate onuraduna*<br>*Entidad beneficiaria* | *Proiektua*<br>*Proyecto* | *Puntuak*<br>*Puntos* | *Dirulaguntza*<br>*Subvención*<br>*(€)* | *Kontu sailak*<br>*Partidas* |
|---|---|---|---|---|---|
| 2021-AN01-001-01 | Errenteriako Udala | Elkarbizitza Errenterian | 81 | 10.465,00 | 1.0140.400.461.01.01.2021: 6.279,00 €<br>5.0140.400.461.01.01.2022: 4.186,00 € |
| 2021-AN01-002-01 | Urretxuko Udala | Urretxu denontzat | 78 | 9.993,00 | 1.0140.400.461.01.01.2021: 5.996,00 €<br>5.0140.400.461.01.01.2022: 3.997,00 € |
| 2021-AN01-003-01 | Oñatiko Udala | Jatorri aniztasunaren elkar ezagutza eta aitortza | 66 | 8.604,00 | 1.0140.400.461.01.01.2021: 5.162,00 €<br>5.0140.400.461.01.01.2022: 3.442,00 € |
| 2021-AN01-004-01 | Idiazabalgo Udala | Idiazabal anitza | 60 | 7.985,00 | 1.0140.400.461.01.01.2021: 4.791,00 €<br>5.0140.400.461.01.01.2022: 3.194,00 € |

| *Espedientea Expediente* | *Entitate onuraduna Entidad beneficiaria* | *Proiektua Proyecto* | *Puntuak Puntos* | *Dirulaguntza Subvención (€)* | *Kontu sailak Partidas* |
|---|---|---|---|---|---|
| 2021-AN01-005-01 | Arrasateko Udala | Mundutik Arrasatera, Arrasatetik Mundura | 73 | 9.473,00 | 1.0140.400.461.01.01.2021: 5.684,00 € 5.0140.400.461.01.01.2022: 3.789,00 € |
| 2021-AN01-007-01 | Pasaiako Udala | Pasaiako beste jatorri batuzetako emakumeen taldea | 67 | 8.629,00 | 1.0140.400.461.01.01.2021: 5.177,00 € 5.0140.400.461.01.01.2022: 3.452,00 € |
| 2021-AN01-009-01 | Aretxabaletako Udala | Euskara eta Aniztasunetik elkarbizitza ereiten | 62 | 8.089,00 | 1.0140.400.461.01.01.2021: 4.853,00 € 5.0140.400.461.01.01.2022: 3.236,00 € |
| 2021-AN01-010-01 | Zarauzko Udala | Emanitz | 82 | 8.675,00 | 1.0140.400.461.01.01.2021: 5.205,00 € 5.0140.400.461.01.01.2022: 3.470,00 € |
| 2021-AN01-012-01 | Ordiziako Udala | Ordizia Kolore. Udal harrera sarea eta ongi etorri Euskarara | 88 | 11.233,00 | 1.0140.400.461.01.01.2021: 6.740,00 € 5.0140.400.461.01.01.2022: 4.493,00 € |
| 2021-AN01-013-01 | Donostiako Udala | Herritar berrien harrera baliabideak | 61 | 4.744,00 | 1.0140.400.461.01.01.2021: 2.846,00 € 5.0140.400.461.01.01.2022: 1.898,00 € |
| 2021-AN01-014-01 | Andoaingo Udala | Ongi etorri Andoainera | 71 | 9.125,00 | 1.0140.400.461.01.01.2021: 5.475,00 € 5.0140.400.461.01.01.2022: 3.650,00 € |
| 2021-AN01-015-01 | Eibarko Udala | Actualización del protocolo de acogida | 61 | 7.985,00 | 1.0140.400.461.01.01.2021: 4.792,00 € 5.0140.400.461.01.01.2022: 3.193,00 € |
| 2021-AN01-016-01 | Tolosaldea Garatzen | Elkar ezagutzen 2021 | 87 | 15.000,00 | 1.0140.400.470.00.01.2021: 9.000,00 € 5.0140.400.470.00.01.2022: 6.000,00 € |

EK\CV GAO-I-2021-04812